

103. zk.
2001eko uztaila




Gasteizko Euskaltzaindia Aldizkaria



MARTIN TTIPIA...
...GASTEIZKO SETIOAN (1200. urtea)
HIRIA DEFENDATUZ
Arabera

albeniz



4x3

**HILABETE HONETAN
3 LIBURU ORDAINDU ETA
4 ERAMAN** (merkeena dohain)

albeniz liburudenda

**Benito Ginea, 2 • Tel.-Faxa: 945 25 75 14
01003 - Gasteiz**

103. zk. 2001eko uztaila

4-5. orr.:

Araba Euskaraz irudietan

9. orr.:

Literatura

11-13. orr.:

ARABERA Kultur Taldea: Arabako historia ezagutaraziz

15. orr.:

Kozkortuz: Adurtza Ikastola

16-17. orr.:

Bida/eiatuz

19-21. orr.:

Gaztetxea, guztion etxea

23-24. orr.:

Udalekuetatik colonietara

26-27. orr.:


Avia-Escor atletismo talde arabarra

28-29. orr.:

zeuk aukeratu!

30. orr.:

Iñigo Sarasolaren komikia



GEU Elkartearen ekimenez egina
Erredakzioa: Pedro Asua, 2 - 3.a •
Tfnoa. eta Faxe: 945 22 21 53 • e-mail: geugaste@gm.es



Zuzendaria: Estitxu Breñas Gilz. de Zarate. Erredakzio-batzordea: Leire Lopez de Aberasturi, Edorta Sanz, Edurne Begiristain, Estitxu Breñas eta David Alvez. Erredakzioa: Leire Lopez de Aberasturi, Itziar Uriarte, Edurne Begiristain, Josune Velez de Mendizabal eta Ainhoa Ferron. Argazkiak: Edorta Sanz. Bestelako irudiak-bilaketa: E.B. eta DAV. Testuen orrazketa: E.B. Maketa: Dalvez. Komikia eta logoa: Iñigo Sarasola. Araba Bixotzian: Agurtzane Villate. Kolaboratzaileak: Iñaki Zorrakin. Publizitatea eta Banaketa: Edurne Begiristain. Sustapen-harpidetza saila: E.B.Z., Edurne Begiristain.

Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati) • Ale Kopurua: 2.500 • LG: VI-582/92
-ISSN: 1133-0988.

Frankeo Itundua 48/27 zenb. Aldizkari hau paper ekologiko: egina dago. Geu (Gasteiz) hilabetekariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik.



Eusko Jaurlaritzako
Kulturara Saila



euskaldunon
Egunkaria

**UZTAILEKO ALEAREKIN BATERA
UDAKO OPARIA GEU
ALDIZKARIAREN HARPIDEDUNTZAT***

**"EUSKALDUNON GIDA KOMERTZIALA 01" EUSKALDUNON
EGUNKARIAren eskutik GEU ALDIZKARIKO HARPIDEDUNTZAT**

*Gasteizko banaketa

Euskaldunon Egunkaria eta GEU aldizkariaren ekimenez



70.000 LA

EUSKARA HAZ



ARGANTZUN. EKAINAK 17



AGUN. MARKA GUZTIAK HAUTSIZ.



IZ. TREBINON.



ARABAKO EUSKAL HOTSAK ANTECEDENTES DEL EUSKERA EN ALAVA ERAKUSKETA IBILTARIAK aurrera darrai

ARRAKASTA HANDIZ. Gasteiztik Laudiora, Laudiotik Agurainera, Aguraindik Maeztura, Maeztutik Artziniegara, Artziniegatik Argantzunera, Argantzunetik Trebiñora, Trebiñotik...

- **ARAMAIO**
(Uztailak 1-8)
- **IZARRA**
(Uztailak 16-29)
- **GOPEGI**
(Irailak 6-16)
- **ZUHATZU KUARTANGO**
(Irailak 19-30)
- **ERRIOXA**
(Irailak 3-19)
- **LEGUTIO**
(Urriak 22 Azaroak 2)
- **GASTEIZ**
Unibertsitateko Pabilioia
(Azaroak 6-30)

Gure, zure, historiaren atal garrantzitsu hau ezagut dezazun!

Erakusketak eragindako zorrari eta gastuei eusteko:
3035 0056 43 056.0.03692.5 (EUSKADIKO KUTXA)

gastelZkinak

araba bixotzian



Agurtzane Villate

ikusi-makusi



Euskaldunon hizkuntza eskubideak errespeta daitezen. Gasteiz. Ekainak 23

naturaren isladak



Iñaki Zorrakin



Dortoka korrontezalea (*Mauremys leprosa*).

Arabako hezeguneren batean. A ze tristea lekuaren izena ezin eman, gizaki-harrapakariaren beldurragatik.

GEU aldizkarian iragarritz, EUSKARA bultzatu.

MILA ESKER! Iragar zaitez! 945 22 21 53




GORETTI
ILEAPAINDEGIA

Hedegile kalea (KORRE), 14
(San Migeleko pasabidea)
Tfno: 945 12 08 88 • 01001 - GASTEIZ



MARRAZKIAK • KOADROAK

MOLDURAK
LAMINAK



Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20



6 HILABETERAKO UKIPEN - LENTEAK

14.900 PTAN BAKARRIK

89,55€

Multilens Pack Berria

Eta gainera, bidai POLTSA BAT OPARI

Multipackean hauek sartzen dira:
Hilean behin aldatzeko Multilens lentine 2 kaxa, Multidisoluzio bakarreko edo Multibio Pluseko 2 pote eta lenteak gordetzeko 2 kutxatila.

ZERBITZU OPTIKOETAN
1a

3 hilabeteen ordaindu erretegurik gabe
www.multipackopticas.com

MENDIAOPTIKA

DESDE 1856 AZ GERO

MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza
Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ

Promozioak 01/08/31ra arte edo opariak bukatu arte iraungo du.

ELKARLANEAN ARGITALETXEAREN ESKUTIK...

Izenburua: **SPrako tranbia** • Egilea: Unai Elorriaga
 Hitzaurrea: Xabier Mendiguren Elizegi
 Bilduma: Literatura 212 • Orriak: 156
 Salneurria: 1680 pta • Data: 2001eko ekaina



ELKARLANEAN



Benetako harribitxi bat da SPrako tranbia, lehen obra batean harrigarria den maisutasunaz idatzia. Harrigarria da gai nagusia ere, egilea gaztea izaki: agure baten eromen prozesua, izugarria izanda ere espanturik gabe kontatua; eta hunkigarria, dudarik gabe.

Gaiaren gainetik, azpimarratzekoa da sentipenak transmititzeko egileak daukan modu berezia, sentimenduez aritzeko estilo fin eta dotore hori.

Protagonisten artean solasaldi txinpartatsuak topatuko ditugu, pasadizo xelebreak, erromantizismo samurrez edo sentsualtasun lotsati batez beteriko pasarteak, edo lente distorsionatu batekin ikusiagatik guztiz erreala zaigun egunerokotasun bat.

Ohartzekoa da, halaber, obraren umorea: Elorriagak ez du algara bilatzen, baina ironia mehe bat sumatzen da orriz orri, bai istorioari eta pertsonaiei dagokienez, baita hizkuntzari eta idazketari buruz ere, bere lan-gintza ongi ezagutzen duen egilea denez jolasak, paradoxak eta bestelako keinuak tartekatzen baititu Elorriagak, idazle maiteentzako omenaldiekin batera. Unai Elorriaga Lopez de Letona 1973ko otsailaren 14an jaio zen, Bilbon, baina Algortan bizi da betidanik. Filologian lizentziatua da eta Labayru Ikastegian egiten du beharra, itzultzaile moduan. Zenbait sari eskuratu eta hainbat antologiatan azaldu dira bere testuak, baina hau du bakarkako lehen liburua. Prentsan ere ohikoak ditu kolaborazio-lanak, hala nola Egunkariaren "Bizkaia" gehigarrian edo Uribe-Kostako UK aldizkarian. Bestalde, bertsolari gisa aritua da eta argitaletxe batean ikasmaterialak prestatzen lan egina, bi alor horiek utziak baditu ere.

ELKARLANEAN LEHIAKETA

**EKAINEKO IRABAZLEA: EZ DU INORK ERANTZUN ZUZENA ETA OSATUA EMAN...
 BESTE BATEAN IZANGO DA, ANIMO!**

**ERANTZUNA: ALE HONETAN
 ATERATAKO ARABERA KULTUR
 TALDEARI BURUZKO ERREPORTAJEAN
 AURKITUKO DUZUE!!!**

**UZTAILA, ABUZTUA ETA IRAILEAN EZ
 DA LEHIAKETARIK IZANGO.
 UDAZKENERA ARTE, BERAZ!**

Euskal komunikazio esparrua babestu eta indartu

Ez ditugu une gozoak bizi euskal ikuspegiak dihardugun euskal komunikabideek. Egin, Egin Irratia eta Ardi Beltza itxita, Jon Abril kazetaria auzipetua, Euskalerria Irratia lizentzia legalik gabe, eta orain

Euskaldunon Egunkaria eta Gararen kontrako eraso judiziala ezagutu ditugu. ETArri egindako elkarrizketa aitazki, Euskal Herrian bertotik informazioa lantzen dugun komunikabideon jardun profesionala jarri nahi dute auzitan. Martxelo Otamendi eta Mertxe Aizpurua eta hauek zuzentzen dituzten komunikabideen kontra Espainiako Entzutegi Nazionalen jarritako kereilak informazioa eman eta jasotzeko herritarrek duten eskubidea urratzen du.

Bizi dugun gatazkan ETArri ikuspegiak ezagutzeak interes informatibo nabarmena dauka, eta horrela erakutsi dute Euskal Herrian zein erbestean berria zabal jaso duten ehundaka komunikabidek. Horrela erakutsi dute haren karian hainbat erreakzio izan dituzten instituzio eta alderdiek. Agerikoa denez, horrek ez du elkarrizketa argitaratu duten komunikabideen jarrera jakin bat azaltzen, irakurleak jakingo du esandakotik bere iritzia eta ondorioak ateratzen. Informazio egiazko eta objetiboa eskaintzea ez da delitua, irakurle eta komunikabideek legez aitortua duten eskubidea baizik.

Gertatutakoek, eta honen inguruan argitaratu diren hainbat iritzik, Egunkaria eta oro har euskal esparruko komunika-



zioa jotzeko eta isilarazteko asmoa erakusten dute, lehen beste komunikabide batzuekin edota euskalgintzan diharduten hainbat erakunderekin egin den modu berean. Horregatik, guz-

tion artean euskal komunikazio esparrua babestu eta indartzeko premia dugu.

Euskalgintzaren ikuspegitik, Nafarroako Gobernuak euskararen kontra daraman ekinbidea edo Iruñeko udalak Egunkariatik publizitate guztia erretiratzea ez dira kasu isolatuak, aldez aurretik finkatutako jokabidea baizik. Komunikabide honi, irudi jakin batekin lotu izanagatik, bere ospean eta publizitate merkatuan kalte eragin nahi izana ez da zilegi. Gure hizkuntzak bizi duen egoeran Egunkaria zein euskalgintzan diharduten beste erakundeak amiltze bidean jartzeak euskarari eta Euskal Herriari kalte atzeraezinak eragin diezazkieke. Gaur Egunkaria eta Gararen txanda izan da, bihar beste batzuk, euskalgintza zein herri komunikazioan dabilen beste edozeinena izan daiteke.

Garaiz gaude elkarlana bultzatu eta euskal komunikazio esparrua artikulatzeko, presarik gabe baina loak hartu barik. Euskal komunikabideak ezinbestekoak ditugu. Irakur, entzun eta ikus itzazu.

**FELIX IRIARTE • LUIS KARLOS GARCIA
 IVAN SANTAMARIA • JON REJADO**

NONBAIT

Kamisetak: Kukuxumusu, Kot, Maddi, Barabú... **Euskal oihalak:** mantelak, zapiak...

Zeramika, portzelana, zilarra - Opariak eta euskal oroigarriak

Loma Jeneralaren plaza, 5 eta Mateo Moraza, 7
Tel./faxes: 945 232229 • nonbait@nonbait.com

GASTEIZ

ZURE
EUSKAL
DENDAK

UZTINTZA
KERAMIKA TAILERRA

KERAMIKA HERRIKOIA
ETA BERRIA

HEDEGILE kalea (Korreria), 120
Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ



JANTZI
ETA
OPARIAK

Aiztogile kalea (Kutai), 27
Tfno: 945 26 07 10
GASTEIZ

AMILAMIA

arropa eta osagarriak



Pintore kalea, 17
tfnoa:
945 27 40 09
GASTEIZ



HEMEN DUZU ESPERO ZENUENA!

Pintore kalea, 23 • Tel. 945 28 18 38



Hegoamerikako
jantzirik ederrenak

Pintore kalea. (S. Frantzisko kantoiko ertzean)
Tfnoa: 945 25 03 52

Confecciones
Pinedo
JANTZIAK

San Antonio kalea, 11 • GASTEIZ
Tfnoa.: 945 23 39 90

PLATER MIMATUAK...
EZ ZAITEZ GERA GURE KARTA
ETA MENU BEREZIA DASTATU GABE!!!



Unai eta Patxi Fernandez de Retana
Zerkabarren kalea, 18 • GASTEIZ
Telefonoa: 945 26 38 74



BEIRATE
ESTUDIOA

MIKEL
DELIKA

Txikita kalea, 1
Tfno. 945 14 64 10
GASTEIZ


Argazki - Estudioa

Erramun

Heracio Fournier, 23
Tfno: 13 71 02
01006

Askatasun kalea, 5
Tfno: 26 19 91
01004

RAFA TEJA ATELIER



"Zetazko eta
kotoizko ebunak
eskuz margotuak"

- ZAPIAK -

Arantza Arregui

Ramiro Maeztu, 1 • Tfnoa.: 945 13 33 59



Arabera kultur taldea,

Arabako historia josiz joan

Tomas Urzainki historialari nafarrak 1200. urteko Gasteizko setioari buruz egindako liburuak arrakasta handia izan zuen, jendearen jakinminari esker. XII. mendean gertatutakoek Nafarroaren geroa baldintzatu zuten, erresuma zaharraren gainbeheraren hasiera izan zirelako. Hilabete gutxi barru gure historiaren beste une erabakigarri bati buruzko lana kaleratuko du Araberak, Txema Flores-ek gerra zibilari buruz egindakoa, hain zuzen. “Apurka-apurka gure historiari buruzko lanak ateratzen joango gara eta agian bost bat urte barru guztiak josiz eta hutsune txikiak betez Araba eta Gasteizko historia osatzea lortuko dugu”. Horixe historiazalearen ilusio nagusienetako bat.

Gasteizko setioari buruzko zehaztasun gutxi ezagutzen dira, eta ez aztertuta ez daudelako, “historia nork kontatzen duen garrantzi handia duelako” baizik, eta orain arte setioa “voluntaria entrega” bezala definitu dutenek kontatu digute gertatutakoa. Tomas Urzainkiren liburuak azaltzen duenez, Gaztelako armada indarrez sartu zen Gasteizen; baina orduko bizitzaren zehaztasun gehiago argitzen ditu: orduko Nafarroa (Araba barne hartuz) euskalduna zela adibidez, “Gorteak ere euskara zuen lehen hizkuntza, ez bakarrik herriak; eta euskaraz hitz egiten zen egun Burgos diren Belorado eta Atapuercan eta Errioxako Naiaran (Najera) ere”.

Liburuak Martin Ttipia, Gasteiz hiriaren defendatzailea ezagutzeko aukera ere eman digu; gainera, nafar armada-

1997. URTEKO UDAN SORTU ZEN ARABERA KULTUR TALDEA, TXEMA FLORES ETA JON MAIAREN EKIMENEZ. HILABETE BATZUK GEROAGO DURANGOKO LIBURU AZOKAN “AJURIA ENEKO ITUNA MEZUBIDEETAN” LANA AURKEZTU ZUTEN. ORDUTIK HONA BESTE HAMALAU LAN GEHIAGO KALERATU DITUZTE, BETIERE ARGITALETXE HUTSA BAINO GEHIAGO IZATEKO HELBURUAREKIN SORTU ZELA AHAZTU GABE.

argitaletxea baino gehiago



ren koronel honen omenezko oroitarria jarri zuen Araberak Gasteizko harresitik gertu. Koronelak nafar erregearen alde borrokatu zuen, Gaztelako tropak Gasteizen indarrez sartu eta alde egin behar izan zuen arte, baina porrotaren ondoren ere maila handiko karguak izan zituen Nafarroako gortean, hainbat idazkik egiazta-tzen dutenaren arabera.

Tomas Urzainki eta beste batzuek azaleratutakoak ez dira askoren gogoko izango, baina 1936ko gerrari buruzko

liburu batek polemika handiagoa sor dezake bizi-sufritu zutenetako batzuk bizirik daudelako. "Ez da nire asmoa inori min egitea, baina oroimen historikoa ez galtzea garrantzitsua da zer garen, nondik gatozen eta nora joan nahi dugun argitzeko, eta gure historiaren gune batzuk oso ilun daude oraindik, adibidez Araban gerrarik ia ez zela egon saldu digute, baina proportzionalki Gipuzkoan baino fusilatu gehiago egon zen, eta errepresioa kristorena izan zen".

Hilabete gutxi barru gure historiaren beste une erabakigarri bati buruzko lana kaleratuko du Araberak: Txema Flores-ek gerra zibilari buruz egindakoa

Txema Flores, Araberako kidea:

"Arabako historia ez da ezagutzen"

Araberako sortzaileak "Arabian irakurtzen diren testu eta liburu gehienak Gipuzkoatik datozela" konturatu ziren eta bertako gaiak bertatik jorratuko zituen "tresna" bat behar zela erabaki. "Ideia horretatik abiatuta Tafallako Kultur Taldekoekin hitz egin genuen eta beraiek kultur talde bat sortzeko gomendioa eman ziguten, gure helburuak aurrera ateratzeko azpiegitura izateko", azaldu du Txema Floresek. Erriberakoek jarri zituzten kontaktuan Arabera eta EHUKI taldea, Ajuria Eneko itunak hedabideetan jasotako tratamenduari buruzko liburuaren egilea, lehenengo argitalpena ahalbideratuz.

Urtean bost liburu kaleratu ditu Araberak batezbeste; hamabost hiru urtetan. Horixe izan da bere lan nagusia, eta garai horretan bost bilduma sortzea lortu du: unibertsitate testuak, komikia, "liburu potoloak", arteari buruzko liburuak eta Araba bilduma. Liburuek 1.500 aleko tirada izaten dute, eta zabalpena Euskal Herria eta Estatuan egiten dute Zabaltzen enpresaren bitartez. "Tiradari dagokionez kontuz jokatu behar dugu, gure helburua dirua ez galtzea baita", azaldu du Floresek. Izan ere, Araberakoak ez dira Kultur Taldean egiten duten lanetik bizi, "ez dugu soldata bat atera behar, irabazitakoa eta inbertitutakoa parra geratzearekin nahikoa dugu; bestela, gauzak oso ezberdinak izango

ziren". Liburuak garestiagoak eta gaiak ere salmenta irizpideen arabera aukeratzea ezinbestekoa izango zen.

ARABA BILDUMA BULTZATU

Egun Araba bilduma bultzatzea da Arabera kultur taldearen xede nagusia, "Arabako historia ez delako batere ezagutzen, jendeak interes handia izan arren". Arabarrek beren historia ezagutzeko duten interesa iaz lehen aldiz antolatutako jardunaldietan egiaztatzeak aukera egon zen. "2000. urtean Gasteizko setioaren 800. urteurrena zela jakin genuenean zerbait egiteko gogoak piztu zitzaigun eta hiria eta herrialdearen historiari buruzko jardunaldiak antolatu genituen, La 'voluntaria' conquista liburuaren gai beraren inguruan". Erantzun ona izan zuten jardunaldiek eta aurreko bigarren aldiz antolatu dira, "gaien esparrua zabalduz gainera, 1200 urteko



Unibertsitatean jaiotako ikerketak bertan geratzen direla salatzen du Txema Floresek, "gainera ez daude edonor ulertzeko hizkeran eginda"... Historia gogoko dutenei dei egiten die Araberako arduradunak

Bildumak:

- Unibertsitate testuak:

Argitaratutako lehenengo lanak zabaldu zuen unibertsitate testuen bilduma: EHUKI irakasle taldeak idatzitako "Ajuria Eneko Ituna mezubideetan. Bakerako bidea ala aztoramen iturria?". Ondoren, "Ni Dios ni Darwin" lanak arrakasta handia izan zuen.

- "Liburu potoloak":

Zumalabe Fundazioak egindako herri mugimenduen gida eta EHUKO Leioako kanpuseko irakasle kanporatuen "Historia de una pancarta" hirugarren bilduman kokatu behar dira.


- Araba bilduma:

Tomas Urzainki abokatu nafarraren "La 'voluntaria' conquista", Koldo Zuazoren "Arabarrak Euskararen Herrian" (1998) edota Amparo Lasheras-ek 1976ko martxoaren 3 ahanitzeinari buruz idatzitako liburuak, besteak beste. Araberako arduradunen "kuttuna" da Arabari buruzko bilduma.

gizarteaz egagutu nahi izan dugu, euskararen erabilera,..." (maia-tzean izan ziren Araberak antolatu Gasteizko Alde Zaharreko Historiaren II. jardunaldi hauek, "Hizkuntza, Lurraldetasuna eta Sustraiak" izenburupean; hauetan ere oso balorazio positiboa egin ez. Hurrengoetan Trebiñoren egoera aztertu nahi da, Arabako bihotzean dagoen lur eremua Gaztelako eskuetan egotera nola iritsi den jakiteko helburuarekin. Txemak Unibertsitatera begiratu du Arabako historia zergatik ez den ezagutzen galderari erantzuteko. Unibertsitatean jaiotako ikerketak bertan geratzen direla salatu du, "gainera ez daude edonor ulertzeko hizkeran eginda". Horregatik, historia gogoko dutenei dei egiten die Araberako arduradunak: "Estiloa apur bat landuz, gurean leku bat izango luketen lan interesgarriak daude la ziur naiz; jendea animatu egin behar da, guretzat askoz ere interesgarriagoak direlako artxibategietan arakatzeko egon den lagun batek landutako lanak, historiagile batek egindakoak baino".

Leire Lopez de Aberasturi

Arg.: Edorta Sanz



- Komikia:

"Kondoi hiltzailea" da Araberak kaleratutako komiki bakarra, baina "gehiago ateratzeko asmoa dugu".

- Arteari buruzko liburuak:

Xabin Egaña pintorearen margoak bildu zituen liburua kaleratu zen, eta duela gutxi Jon Maiaren ber-tsoek eta Mikel Dalbret-en marrazkiek osatutako "Irudika idurika" lana.

ARABERA-K ARGITARATU LIBURUAK

1. KOMUNIKAZIOA ETA GIZARTEA Josu Amezagaren edizioa
2. GASTEIZ. 3 MARZO 1976. Un recuerdo 25 años después Amparo Lasheras
3. Nueva Invención de la España plurinacional Jose Luis Orella Unzué
4. GABON GASTEIZ Iñaki Gurrutxaga
5. IRUDIKA IDURIKA. Mikel Dalbret-Jon Maia
6. Ajuria Eneko Ituna mezubideetan: Bakerako bidea ala aztoramen iturria? EHUKI taldea
7. Arabarrak Euskararen Herrian. Koldo Zuazo
8. La "voluntaria" conquista 800 aniversario del sitio de Gasteiz Tomas Urzainki
9. Historia de una pancarta. La lucha por el profesorado propio en la UPV (1988-1999) Colectivo de profesores represaliados de Leioa
10. OINEZ. Xabin Egaña
11. NI DIOS NI DARWIN. Erramun Gametxo
12. Komunikazioaren teorien historia Armand eta Michèle Mattelart
13. KONDOI HILTZAILEA. Ralf König
14. Hezkuntza, teknologia berriak eta hedabideak. Educación, nuevas tecnologías y medios de comunicación. Joseba Iñaki Bengoa, Gorka Jakobe Palazio, Carlos Castaño
15. Euskal Herriko Herri Mugimenduen Gida Joxemi Zumalabe Fundazioa.



ZURE HARATEGIAK



Jose Luis

GARMENDIA

HARATEGIA-URDAITEGIA

Andaluzia kalea 13

☎ 945 28 79 42 • GASTEIZ



XABIER AIZPELEA

HARATEGIA

FLORIDA AZOKA 2 eta 3

☎ 945 13 24 48

ABASTOS AZOKA 2 eta 3

☎ 945 26 78 97



*gure lurraldeko haragi
samurretan espezialduak*

Garagardotegia

ASTE OSOAN

IREKITA

(Astelehenak
izan ezik)

*Gerentzia
berria*

La Blanca



* Oilasko
erreak

* Kazolatxoak

Tfnoa. 945 27 90 46

Herrandarren kalea, 82 • Gasteiz

adaka
madinabeitia



Floridako altxorra !

35

altzariak • apaindurak • Florida, 35 - Tfnoa: 25 93 59 • GASTEIZ

"HERRIA DA GORPUTZA, HIZKUNTZA BIHOTZA"



ARITZ IÑAKI, 11 urte

- Txikiek eta helduek euskaraz hitz egitea.

- "Hizkuntzarik politena euskara da"

- Jaiotzetik euskara ikastea.

- "Aupa euskara, oso erraza da-ta"



AMAIA, 11 urte



REBEKA, 8 urte

- Denok euskaraz hitz egitea, batez ere etxean.

- "Euskara ikastea oso ona da"



NAYAIDE, 11 urte

- Ez esatea ezetz euskarari.

- Euskal Herrian bizitzeko euskara ikasi behar dugula.

- Egunero euskaraz leku guztietan mintzatu.

"Denok ikas dezagun euskara eta, aupa euskara!"



CRISTIAN, 8 urte



UNAI, 9 urte

- Liburu asko euskaraz argitaratzea.



- Kartoizko pankarta batean "Gora Euskara" jarritz.

Ideiak, mezuak, aholkuak..., euskara bultzatzeko, **Adurtza Ikastolako** ikasleengandik jasoak.

Horietako baten bat aurrera eramateko prest? Ahalegindu ba, eta umeen nahiak beteta (erraza, ezta?). Horra hor, beraz, umeen proposamenak eta mezuak, eta aurrera'



E.B.Z.





ORAINTE DA GARAIA: BIDAIAU!

Oso esperientzia gutxi daude bidaia eskaintzen diguna gaitzen dutenak. Gizona eta emakumea tentetu eta ibiltzen hasi zirenetik, lurralde berrien bila ibili dira etengabe. Gure arbasoek barru-barruraino sartu ziguten sentimendu hori. Bidaiazeak gu geu eta gure zentzumenak aldatu egiten ditu. Egunerokotasunetik ateratzen gaitu eta guztia berria egiten zaigu, ume baten begiz ikusten hastea bezala da.

Bidaiaze da inbertsiorik onena, ez baita inoiz ahazten, eta beti ikasi egiten da. Zenbat eta kultura gehiago ezagutu, gure espiritua orduan eta aberatsagoa izango da. Horregatik, bidaiazeak gonbita egin nahi dizuet eta udako opor garaia badatorrela ikusita indar handiagoz gainera.

Bidaia bat egitera bazoaz, hona hemen aholku xume bat: zoaz zure kontura, antolatutako bidaia alboratu. Gehienez beste pertsona batek edo bik lagun zaitzazela. Abiatu aurretik prestatu ahal bezainbeste egingo duzun ibilbidea. Erosi herrialde horri buruzko gida bat, begiratu atlasetan, garaiko egoeraz informazioa bildu. Ez ekipaje handiegirik egin, oinarrikoak soilik hartu. Zure mailetan edo motxilan utzi lekua zoazen herrialdeko liburuak eta oroigarriak ekartzeko. Bertako garraioak erabili, bertako jendea eta errealitatea ezagutzeko modu egokia da. Sartu bertako gizartean, ez konparatu hura etxean utzi duzunarekin. Ez joan aurkako bidetik, parte hartu bertako giroan, zeure gogoz joan zara horra, ez larritu eroso ez zaudelako, gozatu. Eta alde egiten duzunean zure arrastoa ez dadila nabari.

Uda honetan bidaiazeak toki bat aukeratu beharko banu, Peru inguruko Amazoniako lurretan bizi diren bi lagunei egingo nieke bisita. Horietako bat Jesus Lopez de Dicastillo ingeniari nafarra da; 1980az geroztik Hego Amerikan batetik bestera ibili ondoren, duela lau urte Ashaninka lurraldean Pachitea ibaiaren ertzean Humboldt aterpetxea eraiki zuen. Puerto Bermudez herrian dago. Bertara iristeko, Limatik bi eguneko ibilaldia egin behar da, eta ez nolanahikoa gainera. Kostatik abiatuta lau mila metroko altuerara igo behar duzu lehenengo, gero oihane-
ra jaisteko.

Beste laguna Javi Salazar* gasteiztarra da, eta honek ere bidaia ugari egin ondoren Iñapari aterpetxea egin zuen oihanean. Puerto Maldonadon dago hau. Puerto Bermudezera baino errazago iritsi daiteke hona, aireportua baitu eta hegaldi erregularrak baitaude Limatik eta Cuzcotik, eta aireportutik ordu erdira dago.

Bai Jesusek eta bai Javik oso pozik hartuko zaituztete. Oihaneke sekretuetan barrena egiteko anfitrioi apartak dira.

ROGE BLASCO

Harremanetarako: Jesus Lopez de Dicastillo, 00 51 64 72 02 04;

Javier Salazar: 00 51 84 57 25 75

*Geu aldizkarian atera zen duela 2 urte (1999ko maiatzeko alean)



GASTEIZKO HERRIKO TABERNAK



Xabier
taberna
musika ona
eta giro ezin hobea
Aiztogile kalea (KUTXI), 23

**Euskara
bultzatu
nahi?...**



**"Zure ametsak egia
bihurtzen diren tokia"**

IBAIZAR BASERRIA, 4
SOJO-ZOLLO · 01478 ARABA
Tel/Faxa: 945 396 686
www.euskalnet.net/eskutxi
E-Mail: eskutxi@euskalnet.net

CEGASA PILAK
INDARTSUEENAK
ETA
EKOLOGISTENAK

CEGASA
INTERNATIONAL
ALCALINA



CELAYA, EMPARANZA Y GALDOS, INTERNACIONAL, S.A.
Artapadura, 11 - Apdo. 355
Teléf. (945) 12 95 10 - Fax (945) 12 95 14 - 01013 VITORIA

ametsak
Kañamo Denda - Grow shop

C/ Herreria nº38 01001 Gasteiz
Tel-Fax: 945 26 46 43



etxean jaso nahi dut



Izena		
Abizenak		
Helbidea		Tfnoa:
P.K.	Herria	Herrialdea
Bankua/Kutxa		Sukurtsala
Kontu zk. (20 digituak)		Titularra

Urte osoko harpidetza: 2.000 pezeta. Harpidetza egiteko txartela honako helbidera bidal ezazu:
GEU aldizkaria. Pedro Asua kalea, 2 - 3.a • 01008 GASTEIZ

GASTEIZKO

13

urte

eta aurrera!

Denbora mordoxka iragan da 1988. urteko apirilaren 28 hartan 250 lagunek zaborrez goraino betetako "muinoko etxean" sartu eta bere egin zutenetik. Ekimen hark gaur ere indarrean dirauten ideia eta amets batzuen lorpenerako bidearen ateak ireki zituen; hau da, mota guztietako proiektu eta kezkak aurrera eraman eta gauzatzeko eremu aske eta irekia sortu zen.

Herri mugimendutik jaio zen eta horren parte eta garapenerako eremu izan nahi du Gasteizko Gaztetxeak. Udalak eta hiriko gainontzeko erakundeek eskaini gizarte eredu eta kultur aukera zurrin eta itxiegi muzin egin nahian, gazteek beren erara antolatzekeo parada izan zezaten jaio zen eta urteekin sendotu den xedea da hau. Eta horrelako asmo batek neurriko bitarteko batzuk eskatzen dituenaz, Gaztetearen funtzionamendua autogestio ekonomikoan eta egitura asanblearioan oinarritzen da.

GAZTETXEA

GAZTETXEA

Bere 13. urtemuga erabat berriztua bete ondoren, Gasteizko Gaztetxea botata izateko arriskuan



Gaztetxea gizarte eta kultur mugimenduen topaleku tinkatua da Gasteizen



Gaztetxeko liburutegian astero-astero liburu berriak sartzen dira

Horrela, gaur egun, Gaztetxearen baitan koordinaketa lanak egiten dituen Gazte Asanblada, euren ekimenak bertan egiten dituzten kolektibo soziopolitiko eta kulturalak eta laguntzaile gisa aritzen den beste hainbat jende biltzen da.

ISTORIOEZ BETERIKO 13 URTE

Topaketak, jai herrikoiak, kontzertuak, antzerkia eta oro har edozein gizarte-ekimen edota kultural mota bere baitan hartzeko gune alternatibo izateko helburua mantendu eta mantenduko den arren, Gasteizko Gaztetxeak eraldaketa sakonak jaso ditu. Horrela, bere jaiotzetik gaur egunera arte lau aro bereiz daitezke.

Lehendabiziko urte eta erdia oso emankorra izan zen, egoitzaren garbiketa eta gutxieneko egokitzapen lanak burututa, egunero-egunero kontzertu, hitzaldi, erakusketa edo tailerren bat izaten zen, eta arrakastaz gainera. Baina, ilusio horiek zapuztu nahian, Euskal Herri osoa estali zuen heroinaren hodei grisak Gaztetxea eta bere inguruan biltzen ziren kolektibo eta ekimenak ere harrapatu zituen. Egoera honetan, eta Alde Zaharreko Auzo Elkartarekin batera, Gaztetxeko kideek drogaren arazoari aurre egin behar izan zioten Alde Zaharreko Drogamenpekotasunaren Aurkako Koordinakundearen bitartez. Lan gogorrari esker, egoerak hoherantz egin zuen eta elkarlanak auzokide eta Gaztetxeko kideen arteko harremana indartu egin zuen.

Geroago, Gaztetxearen izaeraren inguruko zenbait desadostasunek bultzatuta, pertsona batzuek Gaztetxea utzi zuten garai baten ondoren "muinoko etxeak" beste aldi berri bati hasiera eman zion. Garai honetan, jaio eta 6 urtera, eta ez eztabaidarik gabe, Udalak ura jarri zuen.

1994-1997 urteen artean, bestalde, eguneroko eta asteroko kontzertu, antzerki, jaialdi, erakusketak eta horrelako ekimenak ahaztu gabe, Gaztetxean parte hartzen duten kide eta kolektiboek euskal presoen eskubideen aldeko aldarrikapenak Gasteizko biztanleengana hedatze-

ko ahalegin garrantzitsuak egiten dituzte ekimen desberdinen bitartez. Horien artean, "Euskal Presoak Euskal Gaztetxeetara" astea azpimarra daiteke.

GAZTETXE BERRIA

Geroztik, gazteria, etxebizitza duina eta okupazioaren aldeko zenbait ekimen, tailerrak, ikastaroak edota Arabako Gazte Asanbladaren bultzada bezalako ekintza sozio-politiko eta kulturaletan lan egiten jarraitzeaz gain, Gaztetxeko kideek etxearen konponketa eta egokitzapen lanetan oinarritu dute euren jarduna.

Nahiz eta egitura mantzentzen duen, lehengo apezpikutzaren kotxe tokia zen eraikin horren gauza gutxi gelditzen da gaurko Gaztetxean. Azkenengo urteotan burututako berrikuntza obrek bizitza itzuli diote etxeari. Teilatu berria, ate nagusia eta gainontzekoak aldatu, taberna berriztu, bideo emanaldi, ikastaro eta tailerretarako gela aproposa, talde desberdinentzako aldagela sortu eta eszenatokia eraberritu, komunak jarri, terraza eraiki, ganbarra txukundu... Ez da lan makala izan, are gehiago lan guztia horretan esperientzia profesionalik ez duten Gaztetxeko gazteek beraiek egin dutela kontuan hartzen badugu.

Merezi duen mirespenari zor zaionez, ezin da azkenengo berrikuntzen artean liburutegia aipatzeke utzi. Liburutegi hau aspaldiko proiektua zen, baina bere ateak ez ziren aurreko maiatzera arte ireki. Berau eratzen duten mila ale baino gehiago zenbait argitaletxe, partikular eta Senideak bezalako kolektibotatik irten dira eta astero-astero liburu berriak sartzen dira. Bestaldetik, etorkizun hurbil bati begira, sukalde-jantoki bat eraikitze-ko asmoa ere bada.

EGUNGO GIZARTE ETA KULTUR ESKAINTZA

Aipatu bezala, Gaztetxeko gelek eta eszenatokiak esparru desberdinetako talde askoren iniziatiba eta ikuskizunak hartzen dituzte beren

baitan kultur eta gizarte ekimen sorta anitza eskainiz. Eztabaidek, jaialdiek, hitzaldiek, bideo emanaldiek, kontzertuek... denek dute beren lekua. Jarduera hauek guztiek partehartzaileen inplikazioa bilatzen dute, hots, euren kezka, ideia eta proiektuek itxura har dezatela.

Esate baterako, iaz 15 hitzaldi, 54 kontzertu, 13 antzezlan, 6 ikastaro, 5 txotxongilo saio, kolektibo desberdinen 35 jaialdi eta 36 bideo emanaldi burutu ziren. Partehartzea dohainekoa edota salneurri sinboliko baten truke izaten da, Gaztetxeko kideek oso argi erakutsi nahi baitute berau erabiltzerako orduan dirua ezin daitekeela oztopo bilakatu.

Kontua ez da hor gelditzen eta, Gaztetxea den esparru libre honetatik aparte, Gasteizko gazteen arazo, asmo eta aldarrikapenak kalera ateratzeko ere ekimenak burutzen dira: parodiak, kale antzerkiak... Eta, honetaz gain, Gasteizkoan aparte, Euskal Herriko beste Gaztetxeetan egiten diren gauzen berri emateko asmoz Gasteizko Gazte Asanbladak "Ahuntzaren eztula" irratsaioa ere gidatzen du Hala Bedi Irratian.

ETORKIZUNARI BEGIRA

Jose Angel Cuerda Gasteizko alkatea zen garai horretan Gaztetxeak nolabaiteko onarpena jaso bazuen

Udalaren aldetik, gaur egungo Udal Gobernuarekin dagoen harremana erabat hutsala da, edo, hobe esanda, ez da existitzen.

Prentsan agertutakoarengatik jakin dutenez, Udalak Gaztetxea botatzeko asmoa dauka, Alde Zaharreko PERlari (Berriztapen Osorako Ezohizko Plana) jarraituz bertan behatoki dorre bat eraikitzeke. Baina, esan bezala, ez da Udalaren komunikazio zuzenik izan.

Baina Gasteizko Gaztetxearen inguruan biltzen diren pertsonak ez dute inondik inora egoitza berririk biltzeko asmorik. Gasteizko Gaztetxea, hamahiru urte luzez erakutsi duen moduan, gizarte eta kultur mugimenduen topaleku tinkatua da Gasteizen, hala kontzeptuz nola fisikoki. Zentzu bi hauetan, Gaztetxea kokatuta dagoen auzoarekin erabat uztartua dago eta bere desagerpenak eraldaketa ekarriko luke auzora, eta zer esanik ez, herri mugimenduaren erreferente garrantzitsu bat deuseztuko litzateke.

Gasteizko Udalaren ixilkeria jarreraren aurrean eta bere hurrengo pausoen zain Gaztetxeak bere eguneroko jarduerak, ekimen eta asmoak burutzen segituko du. Ateak hurbildu nahi den ororentzat irekita daude, Gaztetxeak Guztion Etxea izatea lortu eta izaten jarraituko duelako.

Ainhoa Ferron • Arg.: Edorta Sanz





APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ



arabarrok euskarari BAI



www.gazteabertzaleak.com



ERROTA

HORTZ KLINIKA

Julian de Apraiz, 1 – GASTEIZ
Tfnoa. 945 213 390 • Faxe. 945 213 390
e-mail: errotadental@euskalnet.net

UDALEKUAK...???... EDO "COLONIAK"?

UDALEKUETAN ERE, EUSKARA GALTZAILE



ARABAKO IKASTOLEN ELKATEARI EZEZIK, ENPRESA PRIBATUEI ERE IREKI ZAIE AURTEN UDALEKUAK KUDEATZEKO AUKE-RA. ERABAKIAK KEZKA UGARI ERAGIN DITU EUSKARAZKO TALDEEK ESKAINTZA LINGUISTIKO ONA IZANGO OTE DUTEN INGURUAN. ORAINGOAN ERE, EUSKARA ETA EUSKALDUNAK GALTZAILLE IZANGO DIRELA USTE DUTE ASKOK.

Udalekuak emateko lehiaketaren oinarrietan aldaketa izan da aurtén. Izan ere, 2001. urteko udalekuen kudeaketa Arabako Ikastolen Elkarteak ez diren enpresa batzuen esku izango da. Horren berri eman zuen iragan hilaren hasieran Arabako Aldundiko Gazteria Sailak, eta haren arabera, aldaketa horrekin azken hogeitortan hainbat enpresarekiko egon den "bazterketarekin" bukatu nahi izan dute. Horretaz gainera, Zuhatzan eta Barrian

antolatu izan diren udalekuak (Ikasgoxo eta Ttakun ttakun izenez ezagutzen diren programak) orain arte Aldundiaren eta Ikastolen Elkartearen arteko hitzarmen baten bidez kudeatzen ziren. Baina,

aipatu aldaketarekin, Ikastolen Federazioak udalekuek balio duten hamaika milioi pezetatik erdia ordaindu beharko du, alegia, 5,5 milioi.

Pasa den ekainaren 6an bukatu zen udalekuetan izena emateko epea, eta aipatu aldaketekin, haxe izan da Aldundiak eskaini

EHk salatu du iazko udalekuetan euskaraz mintzo ez zen begirale bat aritu zela euskarazko talde batekin

duena: 970 leku euskarazko udalekuetan, 590 leku elebidunetan eta 210 gaztelerazkoetan, zazpi eta hamahiru urte bitarteko haurrentzat. Eskaintza horretarako 24 milioi pezeta bideratuko ditu aurtengo Aldundiak eta orora ehun begirale baino gehiago arituko dira lanean. Aldundiak antolatu udalekuak Euskal Herriko txoko desberdinetan burutuko dira uztailaren 1etik abuztuaren 15a arte. Hala, Barria, Zornotza, Zarautz, Gorliz, Orduña, Doneztebe, Hondarribia, Zuhatza eta Orio dira, besteak beste, aukeran dauden lekuak.

Kritika ugari Aldundiari

Orain arte Arabako Ikastolen Elkartearen esku zeuden udalekuak enpresa pribatu baten esku uzteak errezelo handia sortu du hainbat talderen artean. Izan ere, zenbaitek zalantzak azaldu dituzte aurtengo euskarazko udalekuen mailari buruz, aldaketa ikusirik. Esate baterako, EHk salatu du iazko udalekuetan euskaraz mintzo ez zen begirale bat aritu zela euskarazko talde batekin, eta gainera, Gazteria Sailari leporatu diote enpresa pribatu batzuen interesei mesede egiten ari zaiela. EAJ alderdiak ere salatu du Aldundiak murriztu egin



EAJk Aldundiak euskararen aldeko programei erasotzeko "obsesioa" duela kritikatu du

izana orain arte haurren egun batzuetako egonaldi-programarako egindako ekarpen hori, eta euskararen aldeko programei erasotzeko "obsesioa" duela kritikatu du. Alderdi jeltzalearen irudiko, Gazteria Sailaren erabakia "logikaz kanpo" dago eta hartutako jarrera "Aldundiak euskararen kontra daraman politikaren beste eraso bat da". Kontuan hartu behar da azken hamabi urteotan Zuhatza eta Barriako udalekuek hogen mila haur baino gehiago pasatu direla, eta denbora tarte horretan Arabako Diputazioa ez dela sekula kexatu Ikastolen Elkarteko kudeaketaz.

Oro har esan daiteke, Gazteria Sailari egindako kritikek batik bat aipatzen dutela udalekuetara doazen haur gehienek B eta D ereduetan ikasten dutela (hots, eredu elebiduna eta euskara hutsezkoa) eta gutxiengoa A eredukoa dela. Gauzak horrela, udalekuen kudeaketa enpresa pribatuaren esku uzteak ez du bermatzen hurrek euskara hutsez hitz egingo dutenik, bai euskaraz ez dakiten hurrekin arituko direlako bai enpresa horien begirale batzuek euskaraz dakitenik ziurtatu gabe dagoelako.

"Dibertsifikatzearen aldeko" erabakia

Arabako Aldundiak beraren kontra egin kritikei erantzun die esanez baldintzen aldaketak aukera ematen diela beste enpresa batzuei udalekuen gestioan parte hartzeko, baina, edonola ere, soil-soilik "irizpide juridikoei" jarraiki jokatu dela. Gazteria Sailaren arabera, aurtengo berrikuntza bakarra da oraingoan Ikastolen Federazioak konpetentzia izan duela. Era berean, Aldundiak ukatu egin du Ikastolen Elkartek orain arte udalekuen kudeaketan zuen nagusitasuna apurtzeko operazioa izan denik (oinarrien aldaketaren eraginez, mila haur inguru gutxiago gestioatzera igaroko da), baina, hori bai, "dibertsifikatzearen aldeko" erabakia dela agertu du. Halaber, ez zuen zalantzan jarri gurasoak orain arte Elkartearen zerbitzuekin pozik zirela, "baina, dena den, entitate bakar bat aurkeztzen bada, nekez konparatu ahal izango dute gurasoek".

Foru Aldundiko Gazteria Sailak aitortu du Ikastolen Elkartek "nahikoa esperientzia" duela, baina begiralerik ez duela gaineratu zuen. Izan ere, begirale-plantilarik aurkeztu ez zuelako programa batzuek at geratu zela arrazoitu du.

Gauzak horrela, eta lerro hauek idazteko orduan aldaketarik ez zegoenez, badirudi euskararen normalkuntzan atzerapausoa eman dela, berriro ere.

Eduarne Begiristain • Arg.: Edorta Sanz





Bacalao Giraldo

- Eguneko makailu gesaldua
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin

ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta
erosotasuna zure esku"



Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25 • Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36 • Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza • GASTEIZ

IRUSTA

poteo eta pintxoak

TABERNA

ESPEZIALITATEA:

Patata tortila • Otartekoak

Mateo Moraza 19
Tfnoa: 945 23 19 33
GASTEIZ



e
g
m
e
n
u
a
k
o

LÀ RIOJANA

jatetxea

on egin!

bokatak,
pintxoak,
kazulatxoak

Aiztogile kalea (Kutxi), 33 tfnoa. 945 25 02 39

Ka La Mu

TABERNA

Obdulio Lpz. de Uralde
Margolaria, 5

Tel. 945-22 65 47 • Fax. 945-26 50 16
01008 Vitoria-Gasteiz

Zure denda erotikoa

SEX

Sexua
euskaraz
bizi



PITTILIN GORRI

GASTEIZ
Tren geltokiaren ondoan
Tel: 945 15 42 60

DONOSTIA
OIARTZUN

XIXILU JATETXEA

AMARIKA PLAZA, 2
Tfnoa: 945 23 00 68 • GASTEIZ

bar • restaurante
A
albéniz

Errege atea, 9 • GASTEIZ
Tfnoak: 945 25 05 30 / 945 25 66 85

"Herri kirolak eta herri
jolasak kultura dira"

K U L K I

Tlf.: 945.139.699

Kanpoko klubetan zeuden kirolariak batu eta ekipo berria osatzeko helburuarekin sortu zen orain dela 2 urte Avia-Escor atletismo talde arabarra. Gauzak horrela, probintziatik kanpoko atletismo munduko 23 arabarrak bertako talde batean elkartzeko 4 urteko epea ezarri dio bere buruari Avia-Escor elkarteak. Hortaz, Mikel Garcia Avia-Escorreko presidentearen hitzetan "probintzia osoko atleta guztien artean esfortzu handiz egindako lanaren emaitza dugu talde hau, non babesleen eta Aldundiaren laguntza ezinbestekoa izan den".

Egun arte kanpoko atleta arabar horietatik 18 eskuratu ditu Avia-Escor-ek, soilik bost izaki Arabatik at dihardutenak, "baina poto-loenak dira: Martin Fiz, Ivan Sanchez, Fran Lopez, Oscar Ibañez eta Fernando Ramos; hauek jada diru kopuruari dagokiolarik ohorezko mailan daude".

- ZENBAT ZARETE EGUN AVIA-ESCOR ATLETISMO TALDEAN?

- 50 orora; horietatik 5 errioxar, nafar 1, 3 bizkaitar, kolonbiar 1 eta gainontzekoak arabarrak. Arabarrez osatzeaz gain, gero "fitxajeak" ere egiten dira; izan ere, frogan artean ez daude bakarrik lasterketak, baizik eta beste hainbat gauza tekniko: jaurtiketa, jauzia... Eta gerta daiteke hau lan-tzen duen jenderik Araban ez egotea; horregatik ekarri behar dira.

- EMAKUMERIK EZ?

- Ez, eta azalduko dizut honen arrazoia; neskak eta mutilak izateak klubaren hipoteka lekarke. Esfortzua egin behar duzu talde bakar batean kontzentraturaz; maila nazionalari begiratuz gero klub gehienek bakarrik neskak edo bakarrik mutilak dituzte eta ez biak, nahiz eta gutxi batzuek bi kategoriak izan... Honekin gertatzen dena aurrekontua bitan banatuta gelditzen dela da, eta horrek kaltea bai batentzat bai bestearentzat dakar. Etorkizunean babesle handiagoak izatea bilatzen ari gara eta orduan nesken kluba osatu ahal izango dugu.

AVIA-ESCOR ATLETISMO TALDE ARABARRA



Mikel (erdian) eta Txarlirekin mi

"Araba mailan jende oso kalitate ha

- DIRUA, BERAZ, BETI BEZALA TRABA?

- Bai noski, gure kasuan laguntzak Aldundiko Kirol Saitetik eta babesleengandik jasotzen ditugu. Bestetik, 60 bazkideen kuotak dauzkagu eta baita kolaborazioak ere; adibidez, Vitalarekin elkarlanean txapelketak antolatzen ditugu. Antolatu ohi ditugun txapelketen artean Campeonato Cross de La Blanca, Carrera Popular de los Paseos eta, hirugarren urtez, ekainaren 9an izango den Trofeo de La Blanca; azken hau egutegi nazionalen ez dagoen arren gero eta gehiago sendotzen ari da... Aurten Igor Cajigasen ome-nez egingo dugu, garai guztietako jaurtitzaile hoberena.

Mikel Garcia Zurbano:

-Jaioterria: Gasteiz • **-Jaiotze-data:** 1963.eko ekainaren 25a

-Ikasketak: BBB bukatu eta delineazio ikasketetan hasi bazen ere laster utzi zituen. Egun Avia-Escor-eko presidentea da, eta denbora librean atletismoari eskaintzen dio. "Beste batzuek ardoak hartzen dituzten bitartean nik honetan ematen dut denbora libre".



ntzo

gutxi dugun arren,
ndikoak dira"



FROGAK

TXARLIK, BESTETIK, AVIA-ESCOR TALDEA OSATZEN DUTEN KIROLARIK EGIN BEHARREKO FROGAK ZEINTZUK DIREN KOMENTATZEN DIGU. HONA HEMEN BERAZ, KORRIKAZ GAIN IZATEN DIREN FROGA TEKNIKOAK:

- MAILU, TXABALINA, PISU ETA DISKO-JAURTIKETA.
- JAUIAK: LUZERA-JAUIA, JAUI HIRUKOITZA, ALTUERA-JAUIA ETA PERTIKA-JAUIA.
- HESIAK: 110 M ETA 400 M.
- IBILKETA.
- OZTOPO-LASTERKETA.
- KORRIKA (KROSA, MARATOA ETA ERREPIDEKO LASTERKETAK).

ATLETA OSPETSUAK

BADIRA ARABAN IZEN ONA ETA OSPEA ESKURATU DUTEN ATLETA UGARI... EZIN AHAZTU, BESTEAK BESTE, ROBERTO RUIZ, RITXAR FERNANDEZ, ALBERTI, MIGUEL VOAL, IGOR RODRIGUEZ, MARIO ALVAREZ, ALBERTO VILLACORTA, JOSE MARIA MORENO, IÑIGO GARCIA...

... EA NOIZKO NESKAK!!!

NORGEHIAGOKAK:

- 2001.EKO KLUBEN ARTEKO TXAPELKETA (1. MAILAKOA): 4. POSTUA.
- EUSKADIKO TXAPELKETA (ERRELEBUETAN "4 X 100" MAILAN IRABAZLE).
- 2001EKO EUSKADIKO KLUB JUNIOR TXAPELKETA (6. POSTUA ETA ERRELEBUETAN "4 X 100" MAILAN IRABAZLE).
- MAIATZEAN IZAN ZEN ESPAINIAKO KLUBEN 2. MAILA NAZIONALEKO TXAPELKETA (AUTONOMIKOAN) EUREN KOPURU GORENA ERDIETSI NAHI ZUTEN ETA HALA IZAN ZEN (SEKTORERA PASATUZ); LEHEN LAU POSTUEN ARTEAN GELDITU ZIRENEZ AUKERA IZAN ZUTEN EKAINAREN 17KO 1GO MAILA NAZIONALAREN "FASE DE PROMOCIÓN DE ASCENSO" DERITZONEAN SARTZEKO (AURTEN GASTEIZEN -MENDIZORROTZA- EGIN DA AVIAESCORREK ESKATUTA).
- HONETAN, ETA 8 TALDEREN ARTEAN (2.MAILAKO LEHEN 4RAK + 1. MAILAKO AZKEN 4RAK) LEHEN POSTUA ESKURATU ZUEN AVIA-ESCORREK.
- BESTETIK, ESPAINIAKO MARATOI ERDIA IZAN DA HILAREN 1EAN TENERIFEN (AVIAESCORREKO 4 JOAN DIRA, GUREKIN EGONDAKO TXARLI HORIEN ARTEAN), ETA EUREKIN EGON GINENEAN ITXAROPENTSU ZEUDEN: "BEHINTZAT SEIGARREN POSTUA ESKURATZEA ESPERO DUGU". EA BA; ERNE IBILIKO GARA EMAITZEKIN!

ZORIONAK 1.GO MAILARA IGOTZEAGATIK

Carlos Lopez Tejedor, "Txarli": 1967.eko azaroaren 4an jaioa Gasteizen. SHEEn lizentziatua. Egun heziketa fisikoko irakaslea da. Atletismoa atsegin du, irakurketa eta zinemaz gain. Avia-Escor-eko kidea dugu.

***EUROPEAN KANTARI (SINGING IN THE RAIN)**

THE PUB IBILTARIAREN ORAIN ARTEKO 5 DISKOETAKO 87 KANTUAK



Lasai desafinatzeke 87 kantu 272 orri, poltsikoko liburua, gazte-leraz eta frantsezezko itzulpenekin (eta bere partitura eta akordeekin). 800 pta. (Euskal Herriko liburutendak guztietan jadanik salgai).

A, a, a. Ardo gorri nafarra; Amak ezkondu ninduen; Aldapeko; Axuri beltza; Haika mutil; Ikusi nuenean; Ixil-ixilik dago; Maiteak galdegin zautan; Txori erresinula...87ra arte!

EUSKARAZ BIZI PROGRAMA

"Euskal Herriko txokoak ezagutzen al dituzu?"

Nahi al duzu herriz-herrizko euskara ezpain-belarrietara ibili? Euskara giro euskaldunean ikasi nahi al duzu?

Euskaraz Bizik ematen dizu gure bazterrak ezagutu eta euskara ikasteko aukera" "Zatoz gure hizkuntza hitzetik hortzera egiten den eskualdeetara"

Informazio gehiago: 902 20 85 20 (Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Nekazaritza eta Arrantza Sailen ekimenez)

**BAGAREREN EKIMENEZ...**

*UDA EUSKARAZ 2001:

BREITAINIA-HERBEREAK/TXEKIA-POLONIA BAGARE EUSKAL TOKIAREKIN (BERBAIZU Elkartearekin batera antolatuta)

INFORMAZIOA: 945 25 10 84

"Euskara jalgi hadi mundura"

Etxepareren hitzak abiapuntutzat hartuta Gasteizko BAGARE EUSKAL TOKIAK eta Bilboko BERBAIZU ELKARTEAK euskara eta euskal kultura mundura zabaltzeko nahi dituzte.

Aurreko urtean Kroazia eta Eslovenia ezagutzeko parada eduki genuen. Oraingo honetan **bi bidaia** eskaintzera goaz:

1. Britainia eta Herberreak**2. Txekia eta Polonia**

laz bezala bidaiaren helburuak honako hauek dira:

- Euskaraz egitea
- Euskaldunok elkar ezagutzea
- Euskara eta euskal kultura zabaltzea
- Beste herri batzuetako hizkuntza eta kultura ezagutzea

Beraz, bidaia hauek egiteko ezinbesteko baldintza euskaldunak izatea da

TXANGOAK ABUZZUAN IZANGO DIRA, AUTOBUSEZ ETA KANPINETAN

ABUZZUAN EUSKARAZ EGINEZ ONDO PASATU NAHI BADUZU ETOR ZAITEZ GUREKIN!

UDAN
ere
BARNETEGIAK

**Mundu bat AEKra bildu!**

Zure betiko euskaltegietan
2, 3 eta 5 orduko ikastaroak
uztailean eta irailean

Hobekuntza ikastaroak
DBHko ikasleentzat

IZENA EMAN AEKn:

Arana, 30

Peru, 8

Jose Mardones, 8

izena eman/ matriculate/ inscribete

HEGOALDE
Euskaltegia



Matrikula zaitez !!

Jose Lejarreta 9 behe
Tfnoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ

ARTEPAN



Artisan
Okindegia eta
Goxotegia

Jesús Guridi kalea, 2
Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ

EUSKAL LABELA
LASAGABASTER

harategia eta urdaitegia

Gasteizko
haragitegirik zaharrena

Errege atea, 24
Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

EUSKHARAN. UDAN ERE EUSKARAREKIN JO TA KE.

- Mintza praktika (Berbetan): Helduak (5. urratetik aurrera). Uztaila eta iraila.
- Ikus-entzunezko gela.
- Liburutegi euskalduna. Uztaila eta iraila.
- Bidaiek euskaraz (mintza praktika).
- HHI-EPA (Irailean - doan): lehen hezkuntza, bigarren hezkuntza eta kultur formakuntzarako ikastaroak.



INFORMAZIOA: 945 28 82 75

UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA-UEU: ADI UDAKO IKASTAROEN 29. IKASTALDIARI

^Aurtengoa uda berezia da UEUrentzat, izan ere, Iruñeko ikastaroek 25 urte beteko baitituzte. Urteurren garrantzitsua hauxe, zilarrezko ezteiak ospatuko baititu UEUk Iruñearekin. Hori dela eta, 29etan, Haritzak 25 kimu esaldia aukeratu dugu ikastaroen leloa izateko; haritzak, UEUren sendotasuna erakusten du eta 25 kimuek, berriz, Iruñean egindako 25 urteak, bere ekarpena egin dutenak, hain zuzen ere. Beste muturrean aldiz, Nafarroako Gobernuak hartu duen erabakia dago; hots, duela 10 urtez geroztik UEUrekin zuen ituna eten egin zuen pasa den abenduan, eta beraz, ikastaroak laguntza hori gabe geratu dira. Horretaz gain, azken hiru urteetan ikastaroak emateko erabili dugun Iturraina institutua (bai eta Iruñeko zein Iruñerriko gainontzeko institutuak ere) erabiltzea ukatu digu, oposaketa batzuk direla medio. Hau guzti hau kontuan izanik, UEUk ahal-egin bereziak egin ditu aurtengo udako ikastaroak kalitate handienekoak eta arrakastatsuak izateko. Ezin diogu babesten gaituen gizarteari hutsik egin, eta ez dugu egingo, ez horixe!^.

INFORMAZIOA: 629 48 24 74



GEU ALDIZKARIA. 100. ALEA. MATERIALA SALGAI. EROSI ETA KOLABORATU!

- KAMISETAK (GRISA-BELTZA): 2000 PTA.
- TXISKEROAK: 150 PTA.

*HONAKO TOKIETAN: TXAPELARRI, PARRAL, ALDE ZAHARREKO HERRIKON (KAMISETAK ETA METXEROAK/XABIER, BODEGOIA, ANDAGOIA (METXEROAK))

EDO HONA DEITU:
945 22 21 53.

"TXEROKIREN TXORAKERIAK"

KOMIKI LIBURUA: 1.600 PTA. LIBURUDENDETAN SALGAI.

*HARPIDEDUN ETA BAZKIDEENTZAKO

ESKAITZA BEREZIA: 1.200 PTA. (Hona deituta).



ETA ADI GASTEIZKO XXV. JAZZALDIARI!



* Aurtengo berrikuntzeta-ko bat: **Swing ikuskizuna** Mendizorrotzeko Polikiroldegian (uztailak 15).



Donostian bi etxebizitza alokatzen ditugu Udarako (hila-beteka edo hamabostaldika). Hondartzatik 10 minututara oinez, Egia auzoan. Etxeen ezaugarriak:

- Lehen etxea: egongela eta hiru logela ditu (ohe bikoitza + 3 ohe arrunt). Beharrezko ekipamendu guztiak ditu (sukaldea, labea, frigorifikoa, labadora, telebista...), leihoeak kanpora ematen dute eta berrituta dago.

- Bigarrena: egongela eta bi logela (ohe bikoitza + 2 ohe arrunt). Beharrezko ekipamendu guztiak ditu (sukaldea, labea, frigorifikoa, labadora, telebista...), leihoeak kanpora ematen dute eta berrituta dago.

deitu 617-74-95-09

telefonora

(ELENA edo IÑAKI).

SUMENDI, OSASUNAREN AUTOGESTIORAKO ELKARTEAREN ESKUTIK:

- ATSEDEN-ETXEAK ezagutzeko aukera. Turismo berdea egiteko beste modu bat.



- UDAKO IKASTAROAK-Uztaila, Abuztua, Iraila: Norberak sendatu botikarik jo gabe; Nola antolatu nahi duzun bizitza eraman ahal izateko; Lotsa eta desioa; Gorputz oreka; Emozio-alfabetatzea eta autoestimua...

INFORMAZIOA: 94 615 31 75-94 410 06 44

LIZARRALDE SOINYA TXALAPARTA, S.L.

945 226 977

GASTEIZ

SOINU PROFESIONALA • MEGAFONIA
ESPazio HAUNDIEN SOINUZTAPENA



UDABERRIA elkartea

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat

Uruguai kalea, 9 - Tfnoa: 945 24 49 65
Abendaño kalea 48 - Tfnoa: 945 22 34 33

GASTEIZ

SNIF, SNIF...
EZINEZKOA DA,
BAINA BAI, BENETAN
GURE LAGUNA
JOAN ZAIGU!



IXILTASUN HAU
EZIN DUT JASAN, ...
NOLAKO BAKAR DADEA
NIRE BIHOTZEAN!!



HIRIA, TXEROKIRIK
GABE, EZ DA BERDINA
IZANGO...



BAINO BERE
ASMOAK, BERE
BORROKARAKO
GOGOA, NIRE ESKUZ
BERPIZ TUKO
DIRA!



LASAI, NESKA!
LAGUNTZA BEHAR
DUZUNEAN, ZURE
ONDOAN AURKITUKO
NAUZU...



AAAAAAAH!

...BAAA EGIA
ESANDA,
PATERNALISMO
GUTXIAGO IZATEA
NAHIAGO
NUKE...





ENVIOS Y DISTRIBUCIONES **ARABA S.L.**

BIDALKETAK ETA BANAKETAK

20 URTE GASTEIZEN

- **KORRESPONDENTZIA BANAKETA**
- **MARKETING ZUZENA**
- **LOGISTIKA ZERBITZUA**
- **MANIPULATZEA**

Ansoleta Industrialdea

Aratz kalea 22, behe

Tlfnoa.: 945 15 06 28

Faxa: 945 15 08 74

01006 GASTEIZ

E-posta: endistriaraba@euskalnet.net



LOS ROTUROS

HOTELA TABERNA JATETXEA



BEREZITASUNAK

- Arkume errea
- Ezkontzak
- Jaunartzeak
- Bataioak
- Enpresa bilerak



Tlf.: 945.410.250
Errementari (Herreria) kalea, 10.

MAEZTU

e-mail: losroturos@teleline.es
web orria: usuarios.tripod.es/losroturos